

## Pribatuen Iragarkiak

### HOBETUZ

DEIALDIA, EAEN osasunaren eta laneko arris-  
kuen prebentzioko gaitan lanbide arteko akor-  
dioaren esparruan prebentzioko ordezkariak treba-  
tzeko 2003ko laguntzei buruzkoa. 24772

### BILBAO EXHIBITION CENTRE SA.

IRAGARKIA, Bilboko erakustazoka berriko Os-  
talaritzako ekipamendu-proiektuan dauden ele-  
mentuak hornitzeko kontratua esleitu dela jakite-  
ra ematen duena. 24774

IRAGARKIA, Bilboko erakustazoka berria Altza-  
ri-proiektuan dauden elementuez hornitzeko kon-  
tratua esleitu dela jakitera ematen duena. 24775

IRAGARKIA, Bilboko erakustazoka berria Seina-  
le-proiektuan dauden elementuez hornitzeko kon-  
tratua esleitu dela jakitera ematen duena. 24776

LEHIAKETA, Bilbao Exhibition Centre-ko Arena  
pabilioiko harmailak eskuratzeko, muntatzeko eta  
lehenengo mantentze-lanak egiteko kontratua es-  
leitzeko dena. 24777

## Xedapen Orokorrak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

#### Zk-6912

306/2003 DEKRETUA, abenduaren 16koa, Euskal  
Autonomia Erkidegoan gainbehera etorritako hirial-  
deak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta  
lurraldetasunari begira berpizteko erabateko egita-  
rauei laguntzeko neurriak ezartzen dituen (Izartu  
programa).

Ekonomiaren hazkundera isuri eta prozesu bat da non  
faktore anitzen eragina ageri den, eta denboraren po-  
derioz horien jokabideek eboluzio larriak taxutzen di-  
tuzte. Aipatutako hazkunderan esku hartzen duten fak-  
toreek pixkanaka aldatzen dituzte hazkundera horrekiko  
zituzten balio eta eragina. Jarduera ekonomikoak ga-  
ratzen diren ingurunea hartzen ari den garrantzi espe-  
zifikoa eta habitatarena, hau da lurraldearena, azken ur-

## Anuncios Particulares

### HOBETUZ

CONVOCATORIA 2003 de ayudas para la capaci-  
tacion de los/as delegados/as de prevencion en el  
marco del acuerdo interprofesional en materia de salu-  
d y prevencion de riesgos laborales en la C.A.P.V. 24772

### BILBAO EXHIBITION CENTRE S.A.

ANUNCIO de adjudicación de Contrato de Eje-  
cución de las obras definidas en el Proyecto de  
Equipamiento Hostelero de la Nueva Feria Inter-  
nacional de Bilbao. 24774

ANUNCIO de adjudicación de Contrato de Eje-  
cución de las obras definidas en el Proyecto de Mo-  
biliario de la Nueva Feria Internacional de Bilbao. 24775

ANUNCIO de adjudicación de Contrato de Eje-  
cución de las obras definidas en el Proyecto de Se-  
ñalización de la Nueva Feria Internacional de Bil-  
bao. 24776

CONCURSO para la adjudicación de un Contrato  
de Suministro, Montaje y Primer Mantenimiento  
de las Gradass del Pabellón Arena del Bilbao Exhi-  
bition Centre. 24777

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

#### Nº-6912

DECRETO 306/2003, de 16 de diciembre, por el que  
se establecen medidas de apoyo a programas integra-  
les de revitalización socioeconómica y regeneración te-  
rritorial de zonas urbanas desfavorecidas en la Comu-  
nidad Autónoma del País Vasco (Programa Izartu).

El crecimiento económico es un flujo y un proceso  
donde intervienen múltiples factores cuyos comporta-  
mientos van trazando líneas de evolución con el paso  
del tiempo; los factores que intervienen en dicho cre-  
cimiento, van modificando su valor e influencia en el  
mismo. En los últimos años, el peso específico que va  
adquiriendo el entorno donde se desarrollan las activi-  
dades económicas y el hábitat, es decir el territorio, va

teotan goraka doa, ekonomiaren hazkundeko isuriaren ikurra bereizteko faktoretako bat bezala azaltzen baita.

Begibistakoa da, alde batetik, herrialde baten hazkundera adierazten duen lerroa ez dela ez zuzena ezta jarraitua ere, eta bestetik, hazkunderak lurraldeari dakarkion eragina kasu guztietan ez dela homogenea ezta positiboa ere, batez ere kasu horiek ziklo-aldaketak edo joera sakonagoaren aldaketak adierazten badituzte, garapenereduaren eraldaketak marrazten ari direnak hain zuzen.

Lurralde, gizarte eta habitateari loturiko faktoreak garapen sozioekonomiko positiboari laguntzeko ingurune batean batera sartzeak arretaren zati bat toki mailan ipintzen du, izan ere, garapen horri eragiten dioten faktoreetako anitz topatzeko lekua da. Bizi-kalitatearen maila handiagoak bermatzeko taxutu eta antolatutako hiri eta herriak sustatzea geroari begira eginiko apostu dugu ziklo-aldaketetatik nahiz eredu-aldaketetatik eratorritako erronkei aurre egin diezaieten.

Eusko Jaurlaritzak, diseinatzen ari den planetan eta politiketan eraginkortasunez eta aldeko jarreraz dihardu, izan ere, jakin badaki berak zernolako garrantzia duen ahal den bermerik handienaz Euskadirentzako garapen-sozioekonomikoko prozesu positiboari aurre egiteko beharrezko baldintzak emateko garaian.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak 2000ko abenduan ekimen bat hasi zuen, Izartu alegia, eta berorren arrakasta, udalerrri onduradunetan lortzen ari diren emaitzek baita sortutako itxaropenak ere bemaaturikoa, da, nolabait, orain arte ibilitako bidetik jarraitzeko erabakiaren izana.

Hori guztia horrela izanik, Euskal Autonomia Erkidegoan hirialdeak biziberritzeko erabateko jardunei laguntzeko neurriak ezartzen dituen azaroaren 28ko 236/2000 Dekretuaren bidez Jaurlaritzak hasi zuen ekintza (Izartu Programa) finkatzea Dekretu honen xedea da, aldi berean aipatutako Dekretuaren helburuari ere eusten zaiola. Hain zuzen ere, hori zen ekipamenduetan gabezia duten Euskal Autonomia Erkidegoko hiri eta herrietako aldeak eta auzoak, erabateko izaerako egitarauz baliaturik (Hirialdeak Biziberritzeko Erabateko Egitarauak) gizarte eta ekonomia aldetik biziberritzea eta lurraldetasunari begira berpiztea. Programa horietan auzo eta inguru horietan dituzten berariazko arazo guztiei (gizartea, ekonomia, ingumena eta abar) egiten zaie aurre aldi berean eta batera azken batean, helburua, bai lurraldetasunari begiratuta bai ekonomiari eta gizarteari begiratuta ere, kohesioa lortzea delarik.

Helburu nagusia, beraz, arlo horretan jarduteko esparrua osatzea da, lan hori epe ertainean egonkorra izan dadin, ondorengo beste xedapen batzuek honako hau aldatu edo indargabetu arte, behintzat.

Horregatik guztiagatik, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kon-

en aumento ya que aparece como uno de los factores de diferenciación en el signo de los flujos del crecimiento económico.

Es evidente que la línea que refleja el crecimiento de un País no es rectilínea ni continua, ni el efecto que origina en el territorio es homogéneo ni positivo en todas las ocasiones, en especial las que marcan cambios de ciclo o cambios de tendencias más profundas que van dibujando cambios de modelo de desarrollo.

Conjugar los factores ligados al territorio, a la sociedad y al hábitat en un contexto de apoyo a un desarrollo socioeconómico positivo, focaliza parte de la atención en la escala local ya que es un espacio donde convergen muchos de los factores que inciden en el mismo. Impulsar ciudades y pueblos diseñados y organizados para garantizar mayores niveles de calidad de vida, que hagan frente a los retos derivados de los cambios de ciclo y de modelo es una apuesta de futuro.

El Gobierno Vasco, consciente de su influencia a la hora de proporcionar las condiciones necesarias para afrontar con las mayores garantías posibles un proceso positivo de desarrollo socioeconómico para Euskadi, actúa de manera proactiva en los planes y políticas que diseña.

En este sentido, el Gobierno Vasco en diciembre de 2000, emprendió una iniciativa, Izartu, cuyo éxito avalado por los resultados que se van obteniendo en los municipios beneficiarios y por la expectativa generada, motiva la decisión de continuar por la línea marcada.

En este contexto, el presente Decreto tiene por objeto consolidar la acción de Gobierno emprendida a través del Decreto 236/2000, de 28 de noviembre, por el que se establecen medidas de apoyo a las actuaciones integrales de revitalización urbana en la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Izartu), manteniendo el objetivo de promover la revitalización socioeconómica y la regeneración territorial de las zonas urbanas de la Comunidad Autónoma del País Vasco deficitarias en equipamientos mediante programas de carácter integrado (Programas Integrados de Revitalización Urbana) donde se aborden de forma conjunta todos aquellos problemas específicos (sociales, económicos, medioambientales, etc.) de dichas zonas con el objetivo último de alcanzar su cohesión territorial, económica y social.

Su finalidad primordial es la de configurar un marco de actuación con carácter de estabilidad en el medio plazo que mantenga una vocación de permanencia en el tiempo hasta su modificación o derogación por disposiciones posteriores.

En virtud de ello, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y

tseiluak 2003ko abenduaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Xedea.

Dekretuaren xedea honakoa izango da: ekipamenduetan gabezia duten hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak emango dituen laguntzen esparrua zehaztea.

**2. artikulua.**– Onuradunak.

1.– Dekretu honetan arautzen diren laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek jaso ahal izango dituzte, eta, horretarako, arau honetan ezarritako betekizunak errespetatuta, banaka zein taldeka, Hirialdeak Biziberritzeko Erabateko Egitaraua aurkeztu beharko dute lurraldetasunari dagokionez eta ekonomia eta gizarte mailan gainbehera jasan duten herrietako eta hirietako auzo eta inguruak berreskuratzeko.

2.– Udalerrri batek Dekretu honen arabera jaso ahal izango duen diru-laguntza Hirialdeak Biziberritzeko Erabateko Egitarau bakarria finantzatzeko izango da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoan hirialdeak biziberritzeko erabateko jardunei laguntzeko neurriak ezartzen dituen azaroaren 28ko 236/2000 Dekretuaren arabera onuradun diren udalerrriak Dekretu honetan jasotako diru-laguntzetatik kanpo geratuko dira, betiere Biziberritzeko diruz lagundutako Egitarauetan 2003ko abenduaren 31rako 2001-2003 aldirako programaturiko inbertsioaren %30 bat gutxienez burutu ez badute.

4.– 236/2000 Dekretuaren kargura indarrean bi egitarau dituzten udalerrriak Dekretu honen diru-laguntzen onuradunak izan daitezke, betiere Biziberritzeko diruz lagunduriko egitarauetan 2003ko abenduaren 31rako bi egitarauen batez bestekoan gutxienez 2001-2003 aldirako programaturiko guztiaren gutxienezko %30 burututa badute .

**3. artikulua.**– Gainbehera etorritako eta gabezia duten hirialdeak.

1.– Dekretu honen eraginetarako, herri edo hiri bateko auzoa edo inguru gainbehera etorritako eta gabezia duen hirialdetzat joko dira, hain zuzen, udalerrriaren lurralde osoa edo zatia eta udalerrri mugakideen aldameneko aldeak, betiere bertan honako arazoetarako bat azaltzen bada:

- a) Langabezia.
- b) Udal-ekipamenduaren horniketa urria.
- c) Azpiegitura fisikoen gabezia, hiri edo herri barruko auzoen artean etendurak egotea,..
- d) Kutsadura, ingurugiro fisiko narraitua etab.

aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de diciembre de 2003,

DISPONGO

**Artículo 1.**– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto establecer el marco de ayudas de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco dirigidas a la revitalización socioeconómica y la regeneración territorial integral de zonas urbanas desfavorecidas y deficitarias en equipamientos.

**Artículo 2.**– Beneficiarios.

1.– Podrán ser beneficiarios de las ayudas reguladas en el presente Decreto los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco que, conjunta o individualmente, presenten un Programa Integrado de Revitalización Urbana de zonas afectadas por problemas de deterioro económico, social y territorial de conformidad a los requisitos establecidos en la presente norma.

2.– Un mismo municipio sólo podrá, al amparo del presente Decreto, recibir ayudas para la financiación de un único Programa Integrado de Revitalización Urbana.

3.– No podrán acceder a las ayudas contempladas en el presente Decreto, aquellos municipios que siendo beneficiarios de ayudas concedidas al amparo del Decreto 236/2000, de 28 de noviembre, por el que se establecen medidas de apoyo a actuaciones integrales de revitalización urbana en la CAPV, a 31 de diciembre de 2003 no hayan materializado al menos un 30% de la inversión prevista para el periodo 2001-2003 en los Programas de Revitalización subvencionados.

4.– Aquellos municipios que cuenten con dos Programas financiados con cargo al Decreto 236/2000, podrán acogerse a las ayudas contempladas en el presente Decreto siempre que hubieran materializado a 31 de diciembre de 2003, como promedio de ambos programas, una inversión mínima del 30% del total programado para el periodo 2001-2003 en los Programas de Revitalización subvencionados.

**Artículo 3.**– Zonas urbanas desfavorecidas y deficitarias.

1.– A los efectos del presente Decreto, se entenderá por zona urbana desfavorecida y deficitaria la parte o la totalidad territorial de un municipio y las zonas contiguas de municipios colindantes donde concurren alguno de los siguientes problemas:

- a) Desempleo.
- b) Infradotación de equipamientos municipales.
- c) Déficit de infraestructuras físicas, fractura urbana, etc.
- d) Contaminación, medioambiente físico degradado, etc.

e) Pilaketa-arazoak egotea (aisialdi eta atsedenerako gune gutxi egotea, oso trafiko handia ibiltzea udalerrri barrutik, batez ere, ibilgailu astunak, etab.).

f) Delinkuentzia edota herritarren segurtasunari dagokien arazoak egotea.

g) Drogadikzioa.

h) Europar Batasunaz kanpoko atzerritar multzo handi bat biltzea.

i) Gizarte-bazterkeriak mehatxaturiko talde kopuru handia egotea.

2.– Onuradunak gainbehera etorritako eta gabezia duten hirialdeak bezala aurkeztu duen eremuak udal mailan edota zentsu-sekziokoan lurraldeari dagokionez eta gizarte eta ekonomia mailan narraiadura adierazteko irizpideetatik gutxienez bi bete behar ditu, hau da behinik behin honako hauetako bi:

a) Bertan bizi den populazioaren bilakarea negatiboa izatea, murrizketa hori biztanleriak 1991-2001 aldian jasandako eboluzioaren arabera neurtzen delarik.

b) Heziketa maila txikia, eta neurtzeko, bertako biztanleriaren ehuneko batek, EAEko batzbestekoaren gaintekoak, lehen ikasketak edo maila apaleko ikasketak egin dituela aintzat hartuko da.

c) Lan-merkatua egoera txarrean egotea. Hori neurtzeko kontuan hartuko da lagabeziaren tasa EAEko batzbestekoarena baino handiagoa izatea (honako langabezi tasen artean hautatu daiteke: guztizkoa, emakumezkoa, gazteena eta epe luzekoa).

d) Etxebizitzetako instalazio eta zerbitzuen maila EAEko batzbestekoarena baino txikiagoa izatea, hori erosotasun indiziaren arabera neurtzen delarik.

e) Biztanleko BPG-aren udalerriko maila EAE-ko batez besteko mailarena baino txikiagoa izatea.

**4. artikulua.**– Hirialdeak Biziberritzeko Erabateko Egitarauak.

1.– Hirialdeak Biziberritzeko Erabateko Egitarau batek bere baitan jardun guztiak jasoko ditu, baldin eta beroien helburua bada gainbehera etorritako eta gabezia dituen hirialde jakin bati eragiten dioten arazoei, aipatutako hirialdea suntsituak izatekoei, erabat aurre egitea. Egitarauak honako atalok ditu:

a) Azterketa sozioekonomiko bat hirialde horretan dauden arazoei buruz informazio osoa ematekoa. Bertan, garbi adierazi behar da biziberritzeko xedez proposaturiko bideak edo bideek zein desoreka konpondu nahi duten.

b) Hirialde horretan dauden desorekak zuzentzeko proposatutako bideak honako hau zehaztuz: helburuak zeintzuk diren eta horiek erdiesteko zein jardun konkretu burutuko den.

c) Finantzaketa-plana: bertan, egin beharreko inbertsioak denboran nola banatuko diren azalduko da, eta finantziazio-iturrien berri emango da.

e) Congestión urbana (escasez de zonas de esparcimiento, consignación de un importante volumen de tráfico a través del municipio, especialmente de vehículos pesados, etc.).

f) Delincuencia y/o problemas de seguridad ciudadana.

g) Drogadicción.

h) Elevada concentración de población extranjera no comunitaria.

i) Una fuerte presencia de colectivos amenazados de exclusión social.

2.– El área que el beneficiario presente como zona urbana desfavorecida y deficitaria deberá cumplir a nivel municipal y/o sección censal obligatoriamente al menos 2 de los siguientes criterios definitorios del deterioro socioeconómico y territorial:

a) Evolución negativa del contingente de población residente, medida por la evolución de la población durante el periodo 1991-2001.

b) Bajo nivel educativo, medido por un porcentaje de población por encima de la media de la CAPV con un nivel de instrucción igual o inferior a estudios primarios.

c) Situación desfavorable en el mercado de trabajo, medido por la tasa de paro por encima de la media de la CAPV (pudiendo optar por la tasa de desempleo total, femenino, juvenil y de larga duración).

d) Nivel de instalaciones y servicios en las viviendas principales por debajo de la media de la CAPV, medido por el índice de confort.

e) Nivel municipal del PIB per cápita inferior al nivel medio de la CAPV.

**Artículo 4.**– Programas Integrados de Revitalización Urbana.

1.– Un Programa Integrado de Revitalización Urbana recogerá el conjunto de actuaciones destinadas a hacer frente de manera global a los problemas de desintegración urbana que afectan a una determinada zona desfavorecida y deficitaria, y se compone de los siguientes apartados:

a) Un análisis socioeconómico que ofrezca una información completa de la problemática urbana existente en la zona, identificando con claridad los desequilibrios sobre los que actuarán la estrategia o estrategias de revitalización que se propongan.

b) La estrategia propuesta para la corrección de los desequilibrios existentes en la zona urbana, detallando los objetivos perseguidos, así como las actuaciones concretas a llevar a cabo dentro de la misma.

c) Un plan financiero que recoja el desglose temporal de las inversiones a realizar, así como las distintas fuentes de financiación.

d) Jarraipena eta ebaluazioa egiteko erabiliko diren prozedurei buruzko azalpen zehatza.

e) Aldez aurretik egindako ebaluazioa, non jardun horien bidez lortu nahi diren emaitzen berri emango den.

2.- Egitarauaren Inbertsioa guztira, gutxienez 2.500.000 eurokoa izango da, inbertsio publikoa nahiz pribatua kontuan hartzen delarik.

3.- Egitarauaren xedeko gainbera etorritako eta gabezia duen hirialdean biztanleko egin beharreko inbertsioa gutxienez 500 eurokoa izango da. Kalkulatzeko, udalerrriaren zati bat bakarra egitarauaren onuraduna baldin bada 3. artikulua araberaren proposatua izan den aldean bizi diren kopurua erabiliko da izendatzaile moduan.

**5. artikulua.**– Diruz lagundu daitezkeen jardunak.

1.– Hirialdeak Biziberritzeko Erabateko Egitarau baten barruan dauden jardunek, Dekretu honetan araututako laguntzak jaso ahal izateko, ondoko ezauzgarri bat edo gehiago izango dituzte:

a) Gainbehera etorritako edota baztertuta geratu diren guneak suspertzea eta hobetzea, bertako herritarren mesedetan. Garrantzi berezia emango zaie gizarteratze handiagoa eta hiriko ingurumena hobetzea ahalbidetzen dituzten ekintzei, gune horiekin loturikoak badi-ra.

b) Alde horietan bizi direlarik bai gizartean bai lan alorrean gizarte-bazterkeriaren mehatxuak jasotzen dituzten taldeen (emakumeak, gazteak, etorkinak, etab.) aldeko jardun lagungarriak garatzea, auzo edo hirialde horretan gizarte-koheren maila handiagoa lortu ahal izateko.

c) Hirialdeko guneak lurraldean ondo integratzea, euren arteko komunikazioa hobetuz, esparru batzuek baztertuta geratzeko duten joera apaltzeko ahaleginak eginez, eta, hala badagokio, esparru horien eta hirigunearen arteko loturak sustatuz.

d) Hiriko jardunak ingurumenean duen eragina ahalik eta txikiena izateko jardunak garatzea, herritarren ingurumenean sor daitezkeen kalteak murriztuz, eta ingurumena hobeto zaintzeko jarrerak eta ekintzak bultzatuz.

e) Informazio eta komunikazioaren alorreko teknologiak txertatzea, hirialdeetako zerbitzuen kalitatea hobetzeko, betiere gune horietan gizarteratzea sendotzen badute.

2.– Era berean, laguntza teknikoko jarduerak diru-laguntza jaso ahal izango dute, jardunak, eta halaber Egitaraua oro har, planifikatu, kudeatu, jarraitu eta ebaluatzea bideraturik badaude. Jardunak diru-laguntza jaso dezakeela bidezkoa dela jotzeko, laguntza teknikorako gastua, orotara, ezin da izan diruz lagundutako gainerako jardueretako gastuen %2koa baino handiagoa.

d) Una descripción detallada de los procedimientos de seguimiento y evaluación previstos.

e) Una evaluación ex ante donde se efectúe una apreciación previa de los resultados esperados con las actuaciones previstas.

2.– En su conjunto, el programa deberá alcanzar un volumen de inversión total, tanto pública como privada, de un mínimo de 2.500.000 euros.

3.– La inversión por habitante de la zona urbana desfavorecida y deficitaria objeto de intervención deberá ser como mínimo de 500\_. A efectos de cálculo, cuando el programa beneficie sólo a una parte del municipio, se utilizará como denominador el número de residentes de la zona propuesta de acuerdo con lo previsto en el artículo 3.

**Artículo 5.**– Actuaciones subvencionables.

1.– Las actuaciones que, incorporadas a un Programa Integrado de Revitalización Urbana, podrán acogerse a las ayudas reguladas por el presente Decreto se concentrarán con carácter general en uno o varios de los siguientes aspectos:

a) La recuperación y mejora de espacios deteriorados y/o abandonados para su uso a favor de las comunidades locales, con especial atención a aquellas actuaciones ligadas a los mismos que puedan permitir una mayor integración social y una mejora significativa del medio ambiente urbano.

b) El desarrollo de actuaciones de discriminación positiva en favor de aquellos colectivos amenazados de exclusión social y laboral (mujeres, jóvenes, inmigrantes, etc.) residentes en dichas zonas al objeto de lograr una mayor cohesión social de las mismas.

c) La integración territorial de las zonas urbanas a través de una mejora en la accesibilidad, procurando aminorar los problemas de perifericidad y, en su caso, de falta de integración entre dichas zonas y el resto del entramado urbano del que forman parte.

d) El desarrollo de actuaciones dirigidas al aminoramiento del impacto ambiental de las actividades urbanas, reduciendo la repercusión sobre el entorno de la colectividad e introduciendo comportamientos y prácticas más respetuosas con el medio ambiente.

e) La introducción de las tecnologías de la información y las comunicaciones al objeto de mejorar la calidad de los servicios sociales de las zonas urbanas, en tanto que se refuerce la integración social en dichas zonas.

2.– Asimismo, podrán ser subvencionadas las actividades de asistencia técnica relacionadas con la planificación, gestión, seguimiento y evaluación de las diferentes actuaciones, así como del Programa en su conjunto. A los efectos de su consideración como actuación subvencionable, los gastos destinados a asistencia técnica no podrán, globalmente considerados, superar el 2% del resto de actuaciones subvencionadas.

3.– Udalei eginiko inbertsioa geroago diruz itzuli beharra dakarten jardunek, oro har, ez dute laguntzarik edukiko.

4.– Dekretu honek jasotako diru-laguntzetatik kanpo geratzen dira azaroaren 28ko 236/2000 Dekretuaren bidez finantzaturiko jarduerak edota faseak, eta baita ere URBAN II Europa Erkidegoko Ekimenaren onuradun diren hirialdetako jarduerak.

**6. artikulua.**– Diru-laguntzen nolakotasuna.

Dekretu honetan araututako diru-laguntzak, itzuli beharrik ez duten diru-laguntzak dira.

**7. artikulua.**– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

2.– Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako diru-laguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearen, ematekoa den diru-laguntza Dekretu honen kargura murriztuko da.

3.– Hala ere, ez dira bateragarriak izango diruz lagundutako biziberritzeko programan jasota dauden jarduerak finantzatzeko helburua duten Eusko Jaurlaritzako beste sailen berariazko programetako laguntzekin.

**8. artikulua.**– Deialdia.

1.– Diru-laguntzak emateko prozedura Administrazioak berak hasiko du bere kabuz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren Aginduz egingo diren deialdien bitartez.

2.– Deialdi horietan, gutxienez, honako hauek zehaztuko dira: eskabideak aurkezteko epea eta lekua, eta diru-laguntzak ordaintzeko izendatu den aurrekontu-kredituaren zenbateko osoa. Horrez gainera, prozezu ondo gara dadin beharrezko beste argibide batzuk ere zehaztu ahal izango ditu, alegia, diru-laguntza eskatzen dutenek aurkeztu beharreko dokumentazioa, jardunen kostua eta inbertsioak benetan beteko direla egiaztatze-ko dokumentazioa, eta abar.

**9. artikulua.**– Diru-laguntzak esleitzea.

1.– Laguntzak norgehiagoka-prozedura bakar batean emango dira. Prozedura horri dagokion deialdia eman dio hasiera.

2.– Baldintza subjektibo eta objektiboak betetzen dituzten garaiz eta forman egindako eskaerak, ondorengo irizpide hauei jarraituz baloratuko dira:

3.– Con carácter general, no serán objeto de subvención aquellas actuaciones que posteriormente signifiquen un reintegro económico de la inversión a los ayuntamientos.

4.– Tampoco podrán acogerse a las ayudas contempladas en este Decreto las actuaciones y/o fases de las mismas incluidas y subvencionadas en programas financiados por el Decreto 236/2000, de 28 de noviembre, ni aquellas actuaciones incluidas en zonas urbanas que se hayan acogido y sean beneficiarias del Programa de Iniciativa Comunitaria URBAN II.

**Artículo 6.**– Naturaleza de las ayudas.

Las ayudas reguladas en el presente Decreto tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

**Artículo 7.**– Compatibilidad de las ayudas.

1.– Las ayudas previstas en el presente Decreto serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o por entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma finalidad.

2.– En el caso de concurrencia con otras ayudas, el importe de la subvención no podrá superar el coste de las actuaciones subvencionadas. En dicho supuesto, se procedería, al objeto de no rebasar dicho límite, a la reducción de la ayuda con cargo al presente Decreto.

3.– No serán compatibles, sin embargo, con la obtención de ayudas dirigidas a la financiación de actuaciones incluidas en el programa de revitalización subvencionado procedentes de programas específicos de otros departamentos del Gobierno Vasco.

**Artículo 8.**– Convocatoria.

1.– El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio mediante las correspondientes convocatorias realizadas por Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública.

2.– Dichas convocatorias especificarán, como mínimo, el plazo y lugar de presentación de las solicitudes y el importe global del crédito presupuestario asignado para su financiación, pudiendo, además, determinar otros aspectos necesarios para su correcto desarrollo, tales como la documentación a presentar por los solicitantes de las ayudas, la documentación justificativa del coste y de la efectiva materialización de las inversiones, etc.

**Artículo 9.**– Concesión de las ayudas.

1.– La concesión de las ayudas se efectuará en un único procedimiento de concurrencia competitiva, que se iniciará con la correspondiente convocatoria.

2.– Las solicitudes formuladas en tiempo y forma que reúnan los requisitos subjetivos y objetivos serán objeto de valoración con arreglo a los siguientes criterios:

a) Gehienez berrogeita hamar punturaino eta Dekretu honen 3. artikulua araber, gizarte, arazo sozioekonomikoen eta hiriko arazoaren maila eta larritasuna neurtuko dira.

b) Aurkeztutako Egitarauaren kalitatea, gehienez 30 punturaino, honako hauek kontuan harturik: hirialde edo auzo horretako arazoak nola zehaztu diren; ezarritako estrategia dauden arazoaren araber, taiuzko eta egokia den; egitaraua burutzeko bideragarritasuna baita Egitaraua ezartzeagatik zer-nolako eragina espero den ere.

c) Parte hartzeak bertako biztanleen artean duen hedapena, horretarako gehienez 10 punturaino neurtuko da Egitarauaren garapenerako onuradun kopurua aurkezturiko programa guztien batzbestekoari dagokionez.

d) Gehienez bost punturaino honako hau baloratu da: Egitarauaren prestaketan bertakoek parte hartzen bideak zabalik egotea (bertakoen partaidetza), proposaturiko auzoa edo ingurua dagoen udalerriko sensibilitate guztiak partaide izateko aukera emanez, eta aurkeztutako Egitarauaren inguruan udalean lortutako adostasun-maila.

e) Gehienez bost punturaino Egitaraua berritzailea izatea baloratuko da, eta gainera Europar Batasunetik etorritako jarraibideekin bat etortzea, batez ere ingurumen alorrean (Bertako Agenda 21) eta aukera berdintasunekoan.

3.- Diru-laguntza jaso ahal izateko, artikulua honen aurreko idatz-zatiko a) eta b) letratan aipatutako irizpideen balorazioan gutxienez 20 eta 10 puntu, hurrenez hurren, lortu beharko dira

4.- Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Ebaluazio Batzorde bat eratuko da eta beronen osara diru-laguntzen deialdia egiteko Agindua araberakoa izango da. Diru-laguntzak esleitzeko organo eskudunari Batzorde horrek igorriko dio bere esleipen proposamena. Proposamen horrek egitarau-izangai bakoitzak lorturiko puntuazioa adieraziko du eta halaber dagokion diru-laguntza zenbatekoa.

5.- Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko sailburuordearen ebazpen bidez onetsi edo ezetsiko dira eskatutako laguntzak. Deialdia argitaratu denetik, gehienez jota, sei hilabeteko epea izango da eskabideei buruzko ebazpena emateko eta eskatzaileei hori jakinarazteko.

